

BIZKAIKO CAMPUSEKO ERREKTOREORDEAREN 2016KO MARTXOAREN 22KO EBAZPENA, HONEN BIDEZ ENPRESA IDEIEN "THINK BIG 2016" LEHIAKETA IRAGARTZEN DA EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEKO BIZKAIKO CAMPUSEKO ZITEK PROGRAMAREN BARRUAN

1. LEHIAKETAREN XEDEA

"Think Big 2016" enpresa- Ideien Lehiaketak Bizkaiko Campusean ikasleen artean Ekintzailearen aldeko Kultura hedatzea du helburu.

Deialdiak jarrera ekintzailea piztu nahi du. Oro har, ikasle, tituludun eta ekintzaileek zerbitzuak eta produktu bideragarriak komertzialki garatzeko, beraien ezaguerak eta lanbide esperentzia aplikatzen adoretu nahi du.

Zitek programak lehiakide saridun edota ez-saridun guztien eskura ideiak martxan jartzeko eta proiektua enpresa bilakatu ahal izateko baliabideak jarriko ditu.

Beste aldetik, lehiaketak edozein negozio-ekimen edota negozio ideia garatzeko lankidetzan eman nahi du eta ekintzaileen beharrak hobeto betetzeko komunikazio tresna bat sortu nahi du.

2. LEHIAKIDEAK

Negozio ideia bat garatzeko parte-hartzaileak honako hauek izan daitezke:

- Bizkaiko Campuseko edozein master, gradu edo fakultatetan matrikulaturiko edozein ikasle, edota Bizkaian bizi eta UPV/EHUko beste Campusetan matrikulatuta dauden ikasleak, masterretan matrikulatuak barne. Proiektu hauetako eragileak edota kolaboratzaileak diren irakasleek ere parte har dezakete. Kolaborazio hau bai zuzenki baita lehiaketaren informazioa edo jarraibidearen bidez ere izan daiteke. Ikasketak 2015eko urtarrilaren 1a baino geroago bukatu dituzten pertsonak ere parte har dezakete.

2015eko urriaren 1a baino lehenago ofizialki osatutako enpresek ezin dute parte hartu.

Talde bakoitzak edota pertsona bakar batek nahi duen beste negozio-idea aurkeztu ahal du.

Saria eskuratzeko ez da ezinbestekoa ideia enpresa bilakatzea.

Lehiakideek, lehiaketan parte hartu nahi duten lehenengo momentutik, zinpeko aitormen batean jasokotako oinarriak onesten eta onartzen dituzte.

Lehiaketatik kanporatzeko arrazoiak hauexek izango dira:

- Epez kanpoko agirien aurkezpena.
- Edozein oinarri urratzea.
- Datu falsuak.
- Epaimahaikoen erabakian eragina izateko edozein motatako saiaketa.

3.NEGOZIO- IDEIAREN AURKEZPENA.

Lehiaketa honetan parte hartzeko eskaerak 2016ko maiatzaren 12ko 13:00ak arte aurkeztu ahal izango dira.

Aurkezteko tokiak hurrengo hauek izan daitezke:

a) Zitek Mintegiak, honako lekutan daudenak:

- ZITEK Portugalete: Nautika eta Itsasontzi-Makineria Goi Eskola Teknikoa M^a Díaz de Haro 68, 2. solairua Portugaleten. T: 94 601 4801
- ZITEK Leioa: Errektorego eraikineko 0 solairua. Sarriena auzoa z/g, 48940 Leioa T.: 94 601 2751
- ZITEK Bilbao: Bilboko Ingeniaritza Goi Eskola Teknikoa 2. Solairua T:94 601 3936

b) Enplegu-Zentroa, Basoko Etxea - Sarrikoko Parkea Lehendakari Aguirre 8 48015 Bilbao T: 94 601 3680

c) UPV/EHUko edozein Erregistro Orokorretan aurkeztu daitezke. Azaroaren 26ko UPV/EHUko 30/1992 Legean jasotako edozein eratan, Herri Administrazioen Araubidea eta Ohiko Administrazio-Prozeduran.

Idea bakoitza, lehiaketako izena izan ezik, kanpotik inolako idazketarik gabeko kartazal itxi batean aurkeztuko da. Barruko edukiera jarraian aipatuko da:

- a) Proiektuaren izena orri batean idatzita.
- b) Pertsona edota talde parte hartzaileen datuak (izena eta taldeko partehartzaile bakoitzeko pasaporte edo NAN)
- c) Telefonoa
- d) Harremanetan jartzeko e-maila, lehiaketa honetan komunikazio bidea izango dena.
- e) Oinarriak onartzen diren zinpeko aitortpena
- f) Proiektuan irakasleren batek lagunduz gero, beraren izena ere.
- g) Gehienezko 3 orrialdeko betearazle-laburpena. Laburpen honetan honako galdera hauei erantzun behar zaie:

1. Proiektuaren izena (egileen izenik aipatu gabe)
2. Merkaturatu nahi den produktu edo zerbitzu berriak konpontzen dituen arazoak.
3. Produktu edo zerbitzua merkatu edota bezeroen zein beharrari begira dagoen.
4. Beste produktu edo zerbitzuetatik ezberdintzeko, zeintzuk diren produktu

edo zerbitzuaren ezaugarri berriztatzaileak.

h) Proiektua laburbiltzen duen slogan edo esaldi bat 15 hitz baino gutxiagotan.

Gainera epaimahaiak proiektuaren ahozko aurkezpen bat eskatu ahal izango du proiektuko pertsona bat edo batzuei, erabaki bat hartu baino lehen.

4. EBALUAKETA IRIZPIDEAK

Negozio-ideien ebaluaketan kontuan hartzekoak, idatzizko eta badago ahozko aurkezpena kontutan izango da:

1. Ideiaren Berrikuntza eta Orijinaltasuna %40
2. Horren garapena %30
3. Bideragarritasun teknikoa eta ekonomiko-finantzaia %20
4. Ekintzailearen edo talde ekintzailearen konpromezua %10

5. ERABAKIAREN PREZEDURA

Lehiaketa hau Bizkaiko Campuseko Errektoreordetzaren erabakiaz ebatziko da, klausula honetan agertzen den epaimahaiak proposatuta. Erabaki hau www.emprendedoreszitek.com web orrialdean argitaratuko da eta hautagaiei komunikatuko zaie deialdi honetarako aukeratutako komunikazio bide bezala hartutako posta elektronikoko helbidera.

Honako erabaki honen aurka, aukerako berraztertze-errekurtsoa jar daiteke, argitaratu eta hilabetearen epea, administrazio publiko eta administrazio-prozedura amankomunei buruzko azaroaren 26ko 30/1992 legean aurreikusi den moduan.

Arestikoa izanik ere, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango da, erabaki hau argitaratu eta handik bi hilabeteren epearen barruan. Berraztertze errekurtsorik jarri bada, ezin izango da administrazioarekiko auzi-errekurtsorik jarri lehenengoaren ebazpen espres edo ustezkoa izan arte.

Epaimahaia honela osatuko da:

.UPV/EHU-ko ordezkari bat Bizkaiko Campuseko errektoreordeak izendatuta, idazkaria izango dena ere.

.BEAZ Bizkaia-ko ordezkari bat

.Bizkaiko Foru Aldundiko Ekonomia Sustatze Saileko ordezkari bat

5.1 Epaimahaia lanen onartze-epearen amaieratik hurrengo 5 egun naturaletan osatu beharko da eta ahozko aurkezpena egin behar duten proiektuak 2016ko maiatzaren 18a baino lehen deituak izan behar dira.

Epaimahaiak egindako batzar guztietan, idazkariak akta egingo du eta kide guztiek sinatuko dute.

5.2 Epaimahaikideen eginbeharrak et atribuzioak.

1. Behin-betiko lanen onartzea eta aurkeztutako dokumentazio falta edo informazio gehiagoren beharra konpontzeko eskakizuna.
2. Lehiakideek aurkeztutako dokumentazioa eta proposamenak arteztu ondoren, erako eztabaidak egin eta gero, funtsez oinarritutako erabaki egokia gauzatuko da
3. Epaimahaiak lehiaketaren oinarrien araupetik kanpo ager litezken kontuak argitzeko eskumena du.
4. Epaimahaiak Campuseko errektoreordeari bere erabaki aukera aurkeztuko dio sortzen den egunetik 10 egun naturaletako epean.

6.SARIAK

Hiru sari emango dira:

- 1.500€ko lehenengo sari bat
- 1.000€ko bigarren sari bat
- 500€ko hirugarren sari bi, azken hau junior enpresa berri hoberenari emango zaio, baldin eta beraien proiektuak ez badu aurreko sariren bat irabazi.

UPV/EHUK saria proiektu bat baino gehiagoren artean banatzea erabaki dezake.

Ikasle irabazleen sariak bikoiztuak izango dira ideiarene aurkezleek 2016.12.31a baino lehen ideia enpresa bilakatzen badute Bizkaian eta baldin eta ekitaldi horretan helburu horretarako kreditu nahiko badago.

Honetaz gain, pertsona edota talde irabazleak, ideia martxan jartzeko erabakia hartuz gero, Emprendedores ZITEK Programako Enpresa-Mintegiek formakuntza, aholkularitza ate kokagun fisikoa eskeiniko dizkiete. Beraien ideia sariduna suertatu ez arren, beste guztietako partehartzaileek enpresa sortu nahi izanez gero, laguntza hau eskuratzeko aukera ere izango dute.

Epaimahaikideen ikuspegitik, negozio-ideiak jatorrian eta kalitate maila eza nabarmenak badira zenbait sari huts gera daiteke. Sari bat lortzeko, gutxienez 100etik 65 puntu jasotzea beharrezkoa izango da.

Emaitzen jakinarazpena 2016ko maiatzaren 27an egingo da UPV/EHUKo gelaren baten antolatuko den sariaren banaketa ekitaldian, arinago jakinaraziko zaiena partehartzaileei eta baita www.emprendedoreszitek.com web orrialdean, Facebook-en eta Twitter-en zabalduko dena.



7. LEHIAKIDEEN BETEBEHARRAK

- .Lehiaketaren oinarrien onarpena.
- .Ezarritakoaren arabera negozi-idea eman.
- .Emandako datuen zintzotasuna ziurtatu.

8. ANTOLATZAILEEN BETEBEHARRAK

Antolatzaileek honako konpromezua hartzen dute:

- Beren ideiak negozio bilakatzea nahi izango duten lehiakide guztientzako formakuntza dohainik. Enpresa aurrera ateratzeko behar diren ezaguerak eskura izango dituzte. Enpresa-plana garatzeko, finantziabideak eta dirulaguntzak lortzeko laguntza eta Bizkaiko Campusean enpresa-mintegietan areto bat emango dizkie.
- Lehiakideek aurkeztutako proiektuen datuen pribatutasuna zainduko da.

9. KONFIDENTZIALTASUN ERABAKIA

Aurkeztutako proiektuen pribatutasunari dagokionez, lehiaketaren epaimahaien jarrera honako hau izango da:

- .Lehiaketan parte hartzeko emandako dokumentuan bertan agertzen den proiektuaren izena publikoa izango da eta komunikatu ahal izango da.
- .Emandako beste informazio guztia proiektuen ebaluaketarako murriztuta egongo da.
- .Egileen adostasuna eta baimenik gabe, emandako informazioa ezin izango da inola ere edozein pertsona edo erakunde pribatu zein publikoei zabaldu edo jakinarazi.
- .Lehiakideek emandako informaziotik sortutako edozein dokumentu pribatutasuneko erabakiaren menpe egongo da.
- .Lehiaketa bitartean eta ondoren ere, proiektuen egileek zabaltasun publikoa lortzeko uste izaten dituzten proiektuen izenak eta zehazkizunak bakar bakarrik plazaratuko dira.
- .Lehiaketakideek, enpresa bilakatzeke interesik ez izatekotan, beste ekintzaileren bati negozi-idea hori aurrera emateko aukera eman ahal izango diote.

10. ZIURTAGIRIA

Lehiaketako antolatzaileek proiektu irabazlearen egileei irabazlea izatea ziurtatzen duen ziurtagiria emango diete, sariaz gain.

UPV/EHUko ikasleek lehiaketan parte hartu izanaren ziurtagiria eska dezakete, aukera askeko 1,5 kreditu edo aukerako kreditu batengatik konbalidagarria, segun eta plan zaharrean edo gradu ikasketetan dauden. Kreditu hoiak lortu ahal izateko, proiektuak gutxienezko puntuazio bat lortu behar du, 100 puntutik 50 gutxienez.

11.DIFUSIOA

Deialdi hau Bizkaiko Campuseko iragarpen taulan publikatuko da eta baita UPV/EHUko iragarpen taula korporala (ehutaula-Bizkaiko Campusa) ere. www.emprendedoreszitek.com web orrialdean ere eskegiko da.

Deialdi honetako ondorengo ekintza eta komunikatu guztiak www.emprendedoreszitek.com web orrialdean publikatuko dira.

12.ERREKURTSOA

Honako erabaki honen aurka, administrazio-bidea agortzen duelarik, aukerako berraztertze-errekurtsoa jar daiteke, argitaratu eta hilabetearen epea, administrazio publiko eta administrazio-prozedura amankomunei buruzko azaroaren 26ko 30/1992 legean aurreikusi den moduan.

Arestikoa izanik ere, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango da, erabaki hau argitaratu eta handik bi hilabeteren epearen barruan. Berraztertze errekurtsorik jarri bada, ezin izango da administrazioarekiko auzi-errekurtsorik jarri lehenengoaren ebazpen espres edo ustezkoa izan arte.

Erabaki honen argitalpenetik sei hilabete igarotzen badira eta web orrialdean adjudikazio erabakirik argitaratu ez balitz, interesatuek beraien eskaera ezetsita uler dezakete, azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 44.1 artikuluan agertzen den bezala, Administrazio Publikoetako Erregimen Juridiko eta Administrazio Prozedura Orokorreko Legea.

Jose Luis Martin González jaunik, UPV/EHUko idazkari nagusiak, ziurtatzen dut dokumentu hau nitzez hitz datorrela bat jatorrizkoarekin. Idazkaritza Nagusiko bulegoko buruak (2. ANZ) izenpetua, 2013ko urtarrilaren 10eko erabakieraz bidez izenpea eskuordetuta. Leioa, 2016 (e)ko martxo (a)ren 31(a) Leioa, 31 de marzo de 2016

Carmelo Garitaonandia

UPV/EHUko Bizkaiko Campuseko errektoreordea
Vicerrector del Campus de Bizkaia UPV/EHU


